

Errebeldeak

XAN KOSKARAT



DUELA 20 bat urte, gaizko mugimendua gertatu ziren Frantses armada kaserman. Garai hartan, instituzio hortara deituak zirenek 'Comité de Soldats' delakoak bultzatu zituzten.

Parte hartu zutenek azkarki zigortuak izan ziren eta kartzela kondenak jasan izan behar zituzten. Bultzaleetan ipar aldeko abertzale bat zegoen. Gaur gertatzen den urrunago baldin badao ere, ez ote doa ildo beretik.

Apirilaren 30ean, maiatzaren 4 eta 7an, Iparraldeko hiru gazte geldituak eta kartzelaratuak izan ziren. Arrazoina: soldaduska ez zetelako egin nahi eta armadaren logika errefusatzeko zutelako. Hots, insumituz zitelako. Galderra funtsezkoa. Gaurko gazteek ez dute nahi besteen peko izan. Geroaren jabe izan nahi dute eta beren eskutuan hartu nahi dute. Hierarki sistema mens baten mutuil ez dute izan nahi. Gizartearen oinarriak hunkitzen dituen gogoetak egin arazten dizkigute. Biharko gizartearen sortu behar diren har emanen asmatzera bortxarazten gaituzte.

Bainan beren eskakizunak, oraindik barnagotik datorzku: beren insumisio jokaera abertzale izaiteari lotzen dute. Euskal populuarentzat askatasuna galde egiten denean, ezin dezakete beren gaztetasuna, epe labur bantentzat baldin bada ere, zanpatzaileen eskutian utzi.

Hego aldean mugimendua aisez ere azkarrago delarik, gaur iparraldeko hiru gazte dira jutuak izanen. Bihar aintzek arrikatzeko delarik. Guk ere euskal gizartearen beste harreman batzua finkatu nahi dugulako. Euskal Herriarentzat beste proiektu bat nahi dugulako.

Eric, Lof eta Nicolas gose greban daude. Junt gaiten haueri, helduden larunbatean muntatua den manifestaldian parte hartuz.

Kanpora!

TXILLARDEGI



«GEURE beginiak adina maita dugun euskara», herbaidurik, zauriturik, itolarrian jaso dugu. Hots, nazio-mintzaira horixe, Jaurilaritzatik beretik zafratutik, isekaturik, ezta otopaturik topatzen dugu behin eta berriz.

Jaunsila horrek (zertarako izenda?) gure nazio-hizkuntza harropuzki mespretzatzen eta hankapetzen duen bakoitzean abertzale guztiok zapuzten gaitu, eta errietan beretan osti-katzen.

Gauzak garbi gelditu dira: Gasteizko gobernuan agintzen dutenak, gure hizkuntzaren etsai lotsagalduek dira. Bestela 'señorito extra-territorial' hori ez litzateke jadanik hor egongo. Ikurriñaz mozortoririk babesten dutenak, 'collabo' borobilak dira: 'kolaborazionistak', adiera hertsian.

Herri hau jasotzekotan, omen, plazaratu zen legetasuna, arrotz bihurtu zagu lotsagabeki; osoki Euskal Herriaren etsai.

Artean (ez dezagun hau ahantz!), hustu egiten dira lantegiak, mendiak berak inmoiliarren zerbitzutan lautzen, eta gure gudariak piztira kiratsak balira ehizatzen eta sarraskitzen. Bapo, mutilak!

1931an hau idatzi zuen gure poetak: «izotzak estali zuen! Euskalerrria... itzal-zokondotan! lore, izotz-bitxia»...

Bizi izan balitz, horrelako zerbaite idatziko zuen gaur.

Baina mamitu eta etorri egingo da izotzondoa; eta gaur barre egiten dutenak, erkakatuak izango dira aurki: «gaste-saiki kementsua! goraino badadit! izozpenik eguzkia! yare dik Euskadi»...

Aberkideok: ez etsi! Larunbat honetan chunka, milaka, geure nazio-mintzairaren alde bilduko gara Gasteiza. Eta gure oihu ozenak, lotsagarrikeri pilo honen amaieraren zantzu isilgaitza hedatuko du bazterretan.

Gora Euskadi euskalduna! Buesa, futxo! Eta kanpora ere bere postuan atxekitzen duten guzti guztiak!

HEMEROTEKA



EL DIARIO VASCO

Helburu historikoa

Zenbaitek uste dute ETAREN erreferente sinbolikorik gabe, gaur HB osatzen duen konglomeratu independentismoaren kontraesanek eragina leher daitekeela eta nazionalismoaren erradikalismo jakin batek irabaz diezaiokela estatutu hiztamenaren asmatuko moderantismoari. Irtenbidea ez da soilik poliziak ETA ahultzea. Bere inguru soziala, historikoki erresistentziaren sindro-

mera ohitua, demokraziara sarztea da kontua. Operazio spziologiko delikatu eta sakona, baina erabakiorra normalizaziorako.

ALBERTO SURIO

DEIA

Interpretazio akatsak

Gobernuak orain aipatutako 12.000 milioien desbideratzea ez da aitzakia Madrilak halako

OROZ / DIARIO DE NAVARRA

arintasunez bizkar emateko hain garrantzitsua den altzairu sektoreari; sektore horren menpe lanpostu asko daude, berori osatzen duten lantegietako langileei zeharka eragindako industria eta zerbitzu lagungarriak gehitzen badizkiegu. Izan ere, ez badira jokabide alternatiboak bilatzen, Eusko Jaurilaritzak atzo kaleratutako agirian agindu bezala, ezinegonak indarkeria ekar dezake.

Aranzadiren jarretak berriro ere erakusten du Gobernu zentralak ez duela konpromezurik

Euskadirekin, euskal sozialistek Ajuria Eneako Hitzamenean besterik sinatu arren.

EDITORIALA

ABC

Barne Sailaren zuhurtasuna

EAJK ez du orain ezinbesteko Ajuria Eneako Hitzamena, alegia, bere bileren formalismoa eta hitzamenak berak dirudinez eskatzen dituen keinu politikoaren koherentzia. Horrela gertatu ahal izan da Leitzarango autobidearen istorio nahasia. Alor horretan Arzalluzen nazionalistek interesatzen zitzairen Herri Bataunari eta zeharka ETARI kontzesioak egitea, orainetan itzultzekoak.

LORENZO CONTRERAS

ZUZENDARIARI

«Buesa Jauna, gu ere Gasteizen izango gara»

«Es más necesario que los niños aprendan inglés que euskara». «El euskara vale para andar por casa». «Ikastolen Elkarteak haurrez borroka politikorako baliatzen da» eta abar, eta abar. Denok irakurri ahal izan ditugun Hezkuntza Saileko buru den Buesa Jaunaren hitzak ditugu. Lotsagarria Baskongadetak Hezkuntza Sailaz arduratzen denak horrelakorik pentsatu eta botatzeko adorerik izatea baina tirat. bota, bota ditu eta badakigu aurrekaldean nolako etsaia dugun. Bai, halaxe da, horrelakorik esateko ausardia duena euskararen eta euskaldun guztion etsaia da.

Zer gertatuko zatekeen beste nonbait halako adierazpenak egin izan balitu? Zer adibidez. Catalunyan? Zergatik ausartzen dira hemen eta ez han? Nola utzi lezakete EAJ-PNVko agintariek hezkuntza alorreko lehen kargua betetzen duen kontseilaria euskararen aurkako adierazpenik egiten? Gure pazientzia neurten ar ote dira? Ez bada! Leporaino gaude!

Herri honek aspaldi erakutsi zuen indarkeriz galdutako euskara berreskuratzeko konpromezua hartua zuela eta Administrazioa da bitartekoak jarri behar dituen, eskaera honi erantzun behar diona eta historikoki euskararekin dugun zorra kitatu nahi

badugu egoera honetatik ateratzen lagundu behar duena.

Zer nolako Euskal Herria nahiko lukete Buesa eta berarekin agintean daudenek? Ez guk nahi duguna. Euskal Herri euskaldun baten alde borrokatuko dugu, ehundik ehun euskaldun izango den herri baten alde, euskara komunikazio tresna izango duen herri baten alde. Urrun dago halakorik, Baskongadetak Hezkuntza Sailburu eralduna dugula kontutan harturik (Non ikusi da halakorik?) euskararekiko sensibilitaterik ez nabarmena baita.

Bai irakaskuntza publikoarekiko eta baita ikastolekiko erakusten ari den jokaera tamalgaria salatzeakoa da. Batetik, irakaskuntza publikoan indarrean dirauen A ereduaren porrota ezin nabarmenagoa da eta maiatzak 19ko EGUNKARIAN Inaki Berniolak azaldu digun legez A eredu besterik eskaintzen ez duten eskolak bakean uzten dituzten bitartean B eta D ereduaketa A ereduaz ezartzen hasiak dira; bestetik, sare horretako plantiletan dagoen irakaslegoaren % 50 (Zazpiren bat mila) euskalduntzeko urratsak oso motel doaz (ikasturteko 700 irakaslerentzako lekua IRALE programan, urtebeteko egonaldiarekin euskalduntzea ezinezkoa delarik).

Zer esanik ez ikastolekiko duen jarrera prepotenteari buruz, Administrazioaren alde ala aurka egoteko aukera bakarra eskaini

die, salaketa publikoa eta kritika hitzetik hortzera erabili beharrean hobe luke denon onerako euskara hutesz lan egiten duen sare bakarraren etorkizuna behar bezala jorratzea.

Ez genuke artikulu hau beste salaketa bat plazaratu gabe bukatu nahi. Jarrai erakundea burutzen ari zen biltzarekin Espainiarrak eginikoa salatu beharreko dela esan behar dago, beratarako Institutuko zuzendariak baimendutako biltzar bat debekatu eta bere partaide guztiak fitxatzeko baimena eman bati zuten gure Hezkuntza Sailburuak. Francok agintzen zuen garria bati baino gehiagori gogora ekarri arazi dio zure baimen honek, Buesa Jauna.

Bukatzeko, guzti honen aurrean egonean geratuko gara lehenik badute oker daude oso. Batetik, jasan eta pairatu beharra dugun Sailburu honen dimisioa ozeki eskatzen dugu eta bestetik, bide honetako lehen pausua izango den itzaropenetan bere burua euskaldun eta euskaltzaleztatu duen edonori Euskal Herrian Euskaraz erakundeko datoren larunbata hilak 23rako Gasteizen egina duen manifestazio diearekin bat gatzozela esan. Zuei denoi bertara zaitzeten dei egiten dizuegu, euskara bizi dela eta biziko dela entzun bezate!

Gora Euskal Herria euskalduna!


IRAKASKUNTZA ALORREKO LAB SINDIKATUA

GAIA JARRITA

Ardanzaren kotxe berria

Galdos jaunaren herritik gora hortxe dago Aranzazu hartu kotxea zoaz lehenbailehen eta bedeinkatu zazu norbaitek ostu ez dezan edo eman diezaioten su hori kostan dan dirutzak badu gizon batek aina pisu oraindik ere prezio hortan erosten dira bi pisu bakarrik ez da ibiliko ta txoferrik behar badezu Acenorretik botatakat bat lasai hartu dezakezu.

JOXE LUIS GORROTXATEGI



Batzorde Parekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800-90

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkarria: JOXE MIEL ZUMALABE

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: PELLO ZUBIRIA

Zuzendarioordeak: LUZIAN ETXEHARRETA, INAKI URRIA

Sustapena: NEREA AZURMENDI

Publikizitatea: KORNELIO ROTETA

HELBIDEAK

Eredelazio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria / 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoutza soziala, Publikizitatea eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20010 Donostia / 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Araba: San Antonio, 20-1, ezker. / 01005 Gasteiz / 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Monastegia, 45-13 esk. / (drintzi dorrea) / 31011 Iruñea / 37 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldekoa, 2-1 eskumara. / 48002 Bilbo / 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaita. / 64100 Baiona / 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11